

ERAKUNDEAREN DATUAK

| | |
|--|--|
| 1. Erakundearen izena: | Eusko Ikaskuntza |
| 2. Sektorea: | Zientifiko kulturala |
| 3. Langile kopurua: | 13 langile |
| 4. Webgunea: | https://www.eusko-ikaskuntza.eus |
| 5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...): | <p>Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, EI-SEV, izaera pribatuko erakunde zientifiko-kultural bat da, 1918an Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak sortua, euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa.</p> <p>Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko garapenerako erronkak identifikatu eta ezagutarazi egiten ditu. Eragileen eta herritarren arteko eztabaida gunea da, erakunde publikoei norabideak proposatzeko bitartekoa.</p> <p>Bost eremu tematiko nagusien gainean lan egiten du: etorkizuna irudikatu, errealitate sozio-kulturala, euskararen etorkizuna, egituraketa sozio-politikoak eta egituraketa sozio-ekonomikoa.</p> <p>Egiteko era:</p> <ul style="list-style-type: none">• Pentsamendu ireki, anitz eta independenteko guneak sortzen ditu euskal gizartearen testuinguruan eta baita globalean ere.• Ikuspuntu zientifiko, ireki eta diziplinartekoa abiapuntu duela, ikaskuntza, ikerkuntza eta ezagutza aplikatuaren sustapena bultzatzen du.• Gizarte-erronka estrategikoei buruzko azterketa eta hausnarketa bultzatzen ditu, eta erantzun berritzaileak eskaintzen dizkie gai horiei.• Gizarte-ehunaren artikulazioa katalizatzen du, kohesioa areagotze aldera.• Berdintasun-irizpideekin dihardu eta belaunaldien arteko lana sustatzen du.• Hainbat erakundeekin eta elkarterekin lankidetzan aritzen da ezagutza-sareak sortzeko. |

- Komunikaziorako eta hedapenerako askotariko euskarriak erabiltzen ditu, sortutako ezagutza gizarteratzea eta gizarte-itzulkina bermatzeko xedearekin.

Eusko Ikaskuntzaren funtzioa osagarria da Euskal Herriaren garapenean diharduten erakunde publikoek eta eragileek betetzen dutenarekin. Herri-akordio oinarritzkoenak ehuntzen laguntzeko, epe luzeko markoak eraiki behar ditu, lankidetzaz bidez; eta haietatik abiatuta ekarpen lagungarriak egin exekuzioan dabiltzanei.

Harremanetarako datuak

| | |
|-------------------------------------|-------------------------------|
| Solaskidearen izen-abizenak: | |
| Helbide elektronikoa: | idazkari@eusko-ikaskuntza.eus |
| Telefonoa: | |

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

| | |
|---|--|
| 1. Praktika onaren titulua: | Bezeroaren/bazkidearen hizkuntza-hautuaren kudeaketa |
| 2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak? | <p>Bazkidearekiko zein bezeroarekiko hizkuntzan harremana zaintzea du helburu erakundeak. Zentzu horretan ahozko zein idatzizko harreman horiek zein hizkuntzetan izango diren jarraipena egiten dugu.</p> <p>Ahozko harremanetan, erakundeko langileen lehen hizkuntza euskara da eta ondoren hartzaileak hautatutako hizkuntzan erantzungo zaio. Agur hitzak, hasierakoak zein bukaerakoak, beti euskaraz luzatzen dira.</p> <p>Idatzizko harremanetan, lehenbiziko harremana eleanitza izaten da, hau da euskaraz eta gaztelera edo frantsesa, eta hartzaileari hizkuntza hautua egiteko aukera ematen zaio, aurrerantzean zein hizkuntzak erabiliko ditugun ezagutzeko.</p> <p>Bazkide zein bezeroen hizkuntza hautua ezagututa aurrerantzean hauekin izango dugun harremana hizkuntza bakarrean, euskaraz, edo eleanitza, hautatutako hizkuntzan (gaztelania edo frantsesa) eta euskara izango da. Eleanitzak diren idatzizko harremanetan, euskara lehenetsiko dugu.</p> <p>Informazio hau gure kudeaketarako datu baseetan eta lanerako programetan jasotzen dugu.</p> <p>Onurak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Epe motzean: Bazkide zein bezeroaren hizkuntza hautua ezagutzea.2. Epe ertainean: Euskararen hutsuneak saihestea eta eleaniztasunaren kudeaketaren zaintzan jarraitzea.3. Epe luzean: Euskararen presentziaren bilakaera ezagutzea.4. Oinarrizko onura: Euskararen erabilera bermatzea. |

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)